

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Nola zaintzen ditu Gasteizko Alde Zaharrak bere auzokide nagusienak? Diagnostiko parte-hartzailea

### Egilea

Maddalen Ruesgas Rasines

### Gradua

Gizarte Langintza

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

3. Osasuna eta ongizatea,  
10. Desberdintasunak murriztea

### Laburpena

Gizarte Langintzako gradu amaierako lan hau, Gasteizko Alde Zaharreko auzokide nagusien zaintzaren inguruko ikerketa bat da. Bertako auzokide naizen heinean, nire jardun profesionala bertan gauzatzea gustatuko litzaidake, Gizarte Langintza Komunitarioaren arloan. Garrantzitsua iruditzen baitzait bizi naizen inguruaren parte sentitzea, eta argi baitut komunitateari ekarpenak egin nahi dizkiodala. Lehenbizi, marko teorikoarekin egingo dugu topo. Bertan, gai desberdinetan adituak diren profesionalen teoria edo lanketak aurkituko dira. Diagnosi honek, aberatsa izan dadin, ezinbestean eskatzen duen diziplinartekotasuna bermatzeko helburuarekin. Izan ere, hurrengoak izan dira sakonduriko arloak: zahartzaroa, osasunaren kontzeptua, komunitatea eta Gizarte Langintza Komunitarioa, hirien egituraketa, eta azkenik, Gasteizko Alde Zaharreko egituraketa. Bigarrenik, ikerketaren abiapuntu gisan zehazturiko helburu eta hipotesien atala aurki daiteke. Ondoren, finkaturiko helburuak eskuratzeko baliatu den IEP (Ikerketa-Ekintza-Parte-hartzailea) metodologia aurkeztuko da, datuen bilketarako tekniken azalpena egitearekin batera. Puntu honetan, aipatzekoa da IEPk ez duela metodo propiorik, ikerketa sozialeko teknika tradizionaletara jo ohi du eta oraingo honetan, FotoVoz izan da ikerketako metodo zentrala, irudiaren bidez errealitate komunitarioari ahotsa emateko gai den tresna. Argazkien bidez, egunerokotasuneko agertokiak islatzea eskatu zaie parte-hartzaileei, kasu honetan, auzoko bizilagun nagusien zaintza edo zaintza ezaren inguruko argazkiak egitearen bidez. Gai zabal horren baitan, auzokideek hausnartzeko eta komunitateko gaiak modu sortzaile eta pertsonalean

irudikatzen aukera izan dute. Metodoaren indarra aldarrikapen gaitasunean dago, bizilagunei benetan axola zaienaren gainean jardutea da kontua, ikertzaile batek ezar ditzakeen gaiak baino emaitza hobek emanez. Horri jarraiki, hautaturiko tekniken bidez egindako analisi enpiriko garatua jaso da, autoreen teoriak eskuraturiko emaitzetara ekarriz; hots, teoria eta praktikaren arteko lotura zuzen eta argian eginez. Bukatzeko, ondorioak partekatu dira, helburu espezifikoetatik eratorritako hipotesiak berretsi edo ezeztatuko dira lehenbizi. Ondoren, Alde Zaharrean Elkar Zainduz sarearen ondorioak aurkeztuko dira; diagnosi honen emaitzek, martxan jarri dituzten aurrera begirako proiektuen berri ematearekin batera.

## 2030 Agendaren GIH Ekarpinak

“Euskal Ekarpina Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari” txostenaren helburua, indarrak bilduz, giza garapen jasangarriaren erronka globalei geure ekarpinak egitea da. Pertsonengan zentratutako mundu bat sortu nahi dugu, eta helburu hori erronka handi bat den heinean, pertsonon konpromisoa eta ardura ere bada. Finean guk geuk eraikitzen dugulako geure errealitatea, bakoitzari dagokion egunerokotasunetik edo/eta esparru profesionaletik. Planetaren babesarekin eta bizikidetzak baketsuarekin konprometituriko mundu bat sortzeko, ezinbestekotzat jotzen dut akademiatik egiten den lana. Dena dela, David Harveyek (2013) aitortzen duen bezala, akademiak zenbaitetan, kaleak eta haietan sortzen diren sentipenak ahaztu egiten ditu. Izan ere, ez dugu ondare intelektualera jo behar transformazio sozialerako beharraz jabetzeko, askotan nahikoa da kaleetan, hiriko gizarte-mugimenduen artean, gertatu den eta gertatzen ari den horretara jotzea. Hori horrela, akademiaren ekarpinak auzolanarekin elkartu behar ditugula defendatzen dut, guztion ongia lortzera zuzendutako elkarlanarekin. Diagnostiko parte-hartzailea den nire GRALak, modu zuzenean erantzuten dio aurkeztu berri dutan problematikari. Ikerketa-Ekintza-Parte-hartzailea (IEP) metodologia eta ekintza komunitarioa baliatu ditut komunitatetik bertatik aterata den diagnostiko burutzeko. IEPren hiru elementuetako bakoitzean zentratuz, ikerketaren alorrean, datuen bilketarako baliatu diren tresna guztiak arrazoiketa kontziente baten ondorioz erabili dira. Gainera, bakoitza martxan egon den bitartean, zein ondoren, haren inguruko balorazio hausnartzaile eta kritikoa egin da. Ekintzari dagokionean, prozesuan zehar baliaturiko tresnak eskuhartzera bideraturik egon dira erabat, ekintzak ere ezagutza iturri izanik. Parte hartzea diodanean, prozesuan ikertzaileak zein hartzaileak inplikatzeko direla aditzera eman nahi du. Funtsezkoa da, azken hauek azterketarako objektu gisan ez ulertzea, haien errealitatea ezagutu eta aldatzeko gaitasuna duten subjektu aktibo gisa baizik (Ander-Egg, 2003). Joel Martíren (2010) arabera gainera, autohausnarketa sustatuko da parte hartzearen bitartez, komunitateari dagokion protagonismoa eta etorkizun kolektiboa eraikitzeko eszenatokia emanez. Diagnostiko konkretu honetara ekarrita, auzoaren nortasunaren adierazgarri den sare lana eta parte-hartzea errespetatzen diren heinean, ezinbestekoa da bizilagun guztiei auzoa eguneroko bizitzako agertoki gisa ulertzeko espazioak ematea. Diagnostiko burutzeko modua ere ezin zen desberdina izan, hortaz, erabat gardena izan da lan honen helburua. Auzokideak gonbidatu dira modu desberdinetan parte hartzera eta emaitza ere haiekin partekatu da, auzokideen hitza ezinbestekoa baita diagnostiko erreal bat egin ahal izateko. Agenda 2030eko 17 helburuak gogora ekarriz, horietako biri ekarpen zuzena egiten die diagnostikoak. Alde batetik,

hirugarrenari, guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea, eta bestetik, hamargarrenari, herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea. Horien baitako zenbait helmugekin loturik dago gainera, 13, 15, 16, 55, 56, 57, 59 eta 60, hain zuzen. Bi helburuei egindako ekarpenak elkargurutzaturik daude, eta hurrengo paragrafoetan azalduko dut nola. Hasteko, hemen diagnosiaren hiru helburu orokorrak, eta horietatik eratorritako espezifikoak: - Alde Zaharrak bere nagusiak nola zaintzen dituen aztertzea o Adinekoen zaintza eta bizikidetzarako garrantzitsuak diren alderdiak identifikatzea o Alde Zaharreko pertsona nagusiek dituzten beharrak ezagutzea o Pertsona nagusiak Alde Zaharrean bizitzea errazten duten aspektu positiboak ezagutzea - Auzoko sareetan pertsona nagusien presentzia bermatzea o Auzoko pertsona nagusiei ahotsa eman eta esateko dutena entzutea - Auzokideek osasunaren inguruan duten irudia aberasteko tresnak eskaintzea o Gure osasunaren subjektu aktibo izateko tresnak eskaintzea o Zaintza kolektiboaren birplanteamendua egitea/sustatzea Edukian sartzeko, GRAL honek, ekintza komunitarioa planteatzen du egunean indarrean dagoen indibidualismoari aurre egiteko erraminta interesgarri gisan. Finean, pertsonen eta komunitateen bizi kalitatea dimentsio guztietan hobetzea helburu duen gizarte lan mota, hain zuzen. Bestela esanda, komunitateak berak garatu beharreko akonpainamenduzko, aldaketazko eta transformaziozko prozesu soziala. Prozesu horrek, analisi eta hausnarketa jarraia eskatzen du, funtsezkoa baita haren existentziaren zergatiak jabetzeko eta egoera bakoitzaren aurrean zein noranzko jarraitu nahi den argi izateko (Asun Llena et al, 2009). Gainera, ekintza komunitarioa osasuna sustatzeko oinarrietako bat da, beste hitz batzuetan, pertsonen osasuna hobeto kontrolatzeko prozesua, osasun komunitarioarekin modu zuzenean erlazionatzen dena. Izan ere, ekintza komunitarioak transformaziorako funtzio hirukoitza du (Ministerio de Sanidad, 2021):

- Bizikidetzaren eremuan bizi diren pertsonen bizi-baldintzak hobetzea.
- Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak ere kontuan izanez.
- Ekintza indibidual eta kolektiborako gaitasunak sustatzea, osasuna eta ongizatea hobetzeko prozesuetan. Helmugei erreparatuz gero beraz, ikus daiteke diagnosi honen bidez, pertsonen erantzunkidetasuna sustatzen dela osasunaren zaintzan (13.helmuga), osasuna ingurune komunitarioan bultzatzearekin batera (15.helmuga). Txosteneko helmugekin jarraituz, diagnosi honen bidez, Osasun Publikoa bultzatu nahi da, instituzioen arteko koordinazio eta lankidetzarako formulak ezarriz, eta koordinazio soziosanitarioa sustatuz (16.helmuga). Diagnosiaren emaitzei erreparatuz, agerian geratzen da osasun-zentroak soilik, ez duela esku-hartze integrala egiteko gaitasunik, arazoari heltzeko komunitateko sektoreen lankidetzaren behar da ezinbestean. Sare lana baita osasun komunitarioaren oinarri garrantzitsuenetako bat. Horietan, komunitatea osatzen duten pertsonen ere parte-hartu behar dute, finean komunitatea baita haren errealitatearen subjektu aktiboa eta prozesuen protagonista (M<sup>a</sup> Isabel Pasarín eta Elia Diaz 2013). Ezinbestekoa da beraz, Hirugarren Sektore Soziala sostengatzea (56. helmuga) eta auzokide boluntarioen lana bultzatzea (57. helmuga). Emaitzekin jarraituz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei dagokienean, Gizarte-langilearen figura eta horiek osasun-langileekin duten koordinazioa funtsezkotzat jotzen dute auzokide nagusienek, eta arlo soziosanitarioaren garrantzia azpimarratzen da. Horrekin batera, partaideei oso garrantzitsua iruditzen zaie gizarte-baliabideak izatea adinekoek jarduerak egin ditzaten, eta sarean lan egiteak informazioa helaraztea errazten duela diote. Hori ordea, ez da

sistemak berak errazten duen zerbitzu, profesional bakoitzaren jarrera eta prestutasunaren arabera da, laguntzeko gogoia eduki beharra dago. Daudenek oso ondo egiten dute, baina lanpostu publiko gehiago jarri beharko lituzkete, are hobeto egiteko. Honek, pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea bultzatzearen beharra islatzen du, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz (55. helmuga). Diagnosiaren ikerketa objektua zein den ahaztu gabe, lan honek zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzen duela (54.helmuga) presente izan behar da. Gasteizko Alde Zaharra, gertuko komunitate naturaltzat hartuz, eta komunitateak nagusiei bizi-kalitate ona izateko aukerak eman behar dizkiola kontuan izanik, auzokide nagusienek gainerakoen besteko balioa dutela defendatzen baitu. Marko teorikoan, emaitza, zein ondorioetan aurki daitekeelarik hori justifikatzeko nahikoa argudio. Horrekin batera, komunitate natural horren parte den dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboaren sustapena egiten du lan honek, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...) (59. helmuga). Finean, bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatuz, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta (60. helmuga).